

SANTIAGO AIZARNA-ri bereak itzultzen

Santiago:

Gabriel Aresti zenak idatzitakoa dudan jartzen ez baduzu ere eta hildakoarentzat hitzik esan nahi ez, argitasunerako hara hor bere letra. Inork ez dezan pentsa nik ezer asmatu dutanik.

Bilbaon, 1968. Abenduak 16.

Juan San Martin

Uharrera

Nere lagun maitea:

Hirea hartu diat. Barka zuek beharago uire oler-bilduma bidali ez baderauat. Zonekin batean doazik.

Asko alaitzen nauk, hortik, estranjeriatik, euskal poezia hedatzeko egiten dituan aleginak gatik. Ikala eta guztiz ere, eta ez modestiazatik, uire yanik ez diat hortik nahasturik ikuri nahi. Badukadan gauzarik maiteena duk eta Poema Ilipana-rako egun dituen selezioarekin ez nartzegok konfor-me. Nor bere poeta-kideak hautatzeko eskulde asoz diat, eta ate falsotik sartu du horuekin ez diat oleritzeko har-emanik yan nahi. Mesedez ibatzeko derauek idzular-koei hortik uire yena eentzeko. Eta K. Zeterin baztertegarkein ere ez nartzegok ados. Mesedez "Si la peldora..."-tik ere desagertzea udhi nuke. Egunen deraudak mesedea?

Nere aldetik ez bai nuen inolazko iritzirik agertu zure poemaren kontra; bai ordea gure artean poeziagintzan agertzearen poza. Euskal idazleon artean ez baita inor sobra. Antologia hartarako zer bide erabili zenuen, neri bost axola. G. Arestik bere *Antologia laburra* igortzean bidali zidan gutunean jartzen zuena transkribatu eta adierazi baizik ez nuen egin *Egan*-en. Ez zenik edo bestelakorik ez nuen jarri. Gezurra onartu nuela? Hark bere iritzia izango zituen, baina nik ez nion eman inolazko onezpenik. Zerorren gaizki ulertze bat ez ote? Asmakinuzen bat ez bada behintzat. (Ikus *Egan*, 1982, 16. orr.).

Hori horrela delarik, ez irainik eta ez laudoriorik ez dut zertan jaso. Bestela, nerea ez dena jasotzeaz zordun nintzake. Eta, zorretan gelditu ez nadin, zureak zeuri igortzen dizkitzut. Tori:

«Ate paltsoetik ibiltzen dena zu izango zarela eta petralkeriak esaten dituana ere bai;... Pozoi-ontzi ttiki bat besterik ez ba zera jakingo dezu noski nun ustu bear dituzun zure ur-zikiñ oiek iñor maxiatzera etorri gabe».

Eta abar. Zikinkeriok erori zaizkitzu eta zureak direnez zerorri itzultzen dizkitzut.

Juan SAN MARTIN